



ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA



Joxe Elozegi kirol zuzendaria, Maurie Fa'asavalu, Pablo Adrian Lemoine eta Juan Rodriguez presidentea, atzo.

Atzerriko bi fitxaketa, goiko postuetara hurbiltzeko

Uruguayko Pablo Adrian Lemoine eta Samoako Maurie Fa'asavalu dira Hernaniko jokalar berriak. Denboraldi honetarako eta datorrenerako sinatu zuten kontratua atzo.

HERNANIKO Ohorezko mailako taldeak bi jokalar berri ditu atzotik. Eta ez nolana hiko jokalariek. Atzerriko bi jokalar esanguratsu, hain zuzen: Pablo Adrian Lemoine uruguayarra eta Maurie Fa'asavalu samoarra. Atzo sinatu zuten Errugbi elkartearekin kontratua. Denboraldi honetarako eta datorrenerako izango dira trikoloreen parte, hasiera batean.

Lemoinek lehenengo lerroan jokatzen du eta Fa'asavaluk hirugarrenean. Paketea indartuz, goiko postuetara hurbiltzeko asmoarekin fitxatu ditu Hernanik. Hala azaldu zuen atzo Joxe Elozegi kirol zuzendariak: «hasierako hel-

«Gure babeslea den Gisat enpresarekin akordio batera iritsi gara eta jokalariek enpresan egingo dute lan, jornada erdiz»

burua mailari eustea zen, baina orain, maila honetan mantendu bakarrik ez, goiko postuetara hurbildu nahi dugu eta oraingo jokalariek eta berri hauekin aukera ikusten dugu horretarako».

Uruguayarrak oso kontentuz dagoela azaldu zuen: «Europako liga batean joka-

tzea aurrerapauso handia da neretzat, eta errugbi eskolari halako garrantzia ematen dion talde batean jokatzea, erronka». Samoarrak oraindik ingelesez bakarrik hitz egiten du eta hitz gutxitan esan zuen oso pozik dagoela.

«Elkarteak ez die ordainduko eta gure izaerari utsiko diogu» Elozegik argitu zuen fitxaketa hauek euren babesle bati esker (Gisat enpresa) egin ahal izan dituztela. «Akordio batera iritsi gara eta jokalariek enpresan egingo dute lan, jornada erdiz, eta gainerakoan errugbian ariko dira. Elkarteak ez die ordainduko,

enpresak baizik; beraz, gure izaerari utsiko diogu».

Gabonetako oporrak bukatzean, serio jarriko dira lanean gainerako taldekideekin eta urtarrilaren 13an, Vigoren kontrako partiduan zaleek jokalar berriak ezagutzeko aukera izango dute. ||

JOKALARIEN DATUAK:

Pablo Adrian Lemoine: Montevideo (Uruguay), 1982.
Neurriak: 1'85m eta 125kg.
Postua: Lehenengo lerroa.
Orain arteko kluba: Montevideo Cricket Club taldea (4 urte).
Maurie Fa'asavalu: Apia (Samoa), 1980.
Neurriak: 1'91m eta 112kg.
Postua: Hirugarren lerroa.
Orain arteko kluba: Samoako Apia errugbi taldea (gaztetatik bertan).

❖ BERRIAK

Kabalgatako erropa jasotzera, gaur

Errege kabalgatan antortxero bezala parte hartuko duten haurrek Biteritik pasa behar dute gaur, 16:00etan, erropa jasotzeko. ||

❖ DORI KAFETEGIA

Mus Txapelketa, gaur

Gaur gaueko 22:30etatik aurrera, Mus Txapelketa jokatuko da Dori kafetegian. Izena bertan eman behar da, eta bikoteko 24 euro izango dira. ||

❖ KAXKO ELKARTEA

Errifak salgai

Kaxko elkarteak errifak jarri ditu salgai. Euro baten trukean 10 zenbaki emango dira, eta saria izango da Errioguardan otordu bat asteburuan, bi pertsonentzako. Sariduna urtarrilaren 6an jakingo da. Errifak Miguel Lujanbiok dauzka salgai. ||

❖ OGASUN BATZORDEA

Batzorde berezia eratzeko bilera

Gaur, 12:30etan, Ogasun eta Ondare Batzordea eratzeko bilera egingo da Udaleko 4garren pisuko bilera gelan. Era berean, Etxerategi egindako dirulaguntza eskaera aztertuko dute batzordean. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Finala gaur jokoan, Futbol Txapelketan

Kale hezitzaileekin Futbol Txapelketa jokatzen ari dira 11 eta 14 urte bitarteko gazteak, eta gaur goizeko 11:30etan finala jokatuko da Gabriel Zelaian. Arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara berriz, festa egingo dute Atsegindegian: argazki emanaldia, merendola eta sari banaketa izango dira. Bihar, sukaldaritza tailerra egingo da, krepak egiteko. ||

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

Brintza

Lan-Aholkularitza -
Fiskala -
Aseguruak Inbertsioak -
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbieta 15 - Hernani
Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Dale Arca 2. Tel. 943 33 59 08

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez**: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz**: Etxebeste Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA
GAUR Orokorrean, giro eguzkitsua nagusituko da. Haizea hegoalde-
 detik etorriko da eta ondorioz,
 tenperaturak gora egingo du.
 Min.11°/Max.18°
BIHAR Goizean zerua nahiko garbi
 egongo da, baina eguerditik
 aurrera fronte bat iritsiko da.
 Ondorioz, tenperatura jaitsi
 egingo da eta euri pixka bat
 egingo du. Min.11°/Max.17°
 (euskaime)

HERRIRA - AZKEN OSTIRALA



Azaroko azken ostiraleko ekitaldian kartzeletan emakumeek bizi duten egoera salatu zuten.

Lau zutabeko kalejira gaur

Iluntzeko 20:00etan abiatuko dira lau kalejira Portu, Zikuñaga, Antziola eta Etxeberritik. Astelehenean berriz, Martutenera martxa egingo da.

GAUR, hileko azken ostirala izanik, ekitaldi berezia antolatu du Herrira mugimenduak. Iluntzeko 20:00etan lau kalejira musikatu aterako dira Hernaniko lau auzotatik: Portuko Pedro Mari tabernatik, Zikuñagako errotondatik, Etxeberriko bolatokitik eta Antziolako errotondatik.

Ondoren, lau kalejirak Plaza Berrin elkartuko dira, eta batera egingo dute Plazarako bidea. Bertan, eki-

taldi berezi bat egingo da, «herriko preso eta iheslariaren giza eskubideen errespetua eta etxeratzea lortzeko».

Parte hartzeko deia, LABek eta Ezker Abertzaleak
 LAB sindikatuak dei egin die langile mugimenduko kide guztiei, gaurko mobilizazioetan parte hartzeko. Ezker Abertzaleak ere bat egiteko deia luzatu die herriar guztiei.

Astelehenean, Martutenera
 Bestalde, datorren astelehenean Martuteneko kartzelara joateko martxa antolatu du Herrirak, *Pausoz pauso bagoaz. 13ak Herrira* lemapean. Bertan gaixotasun larriekin dauden 5 presoek elkartasuna adierazi nahi die horrela.

Martxa goizeko 11:00etan abiatuko da Astigarragako Gruas Alonso enpresatik. Hernanitik Astigarragara 10:30etan abiatuko dira. ||

❖ GABONETAKO EKINTZAK Ederki ibili ziren atzo haurrak, tailerretan

Atzo arratsaldean tailerrak egin ziren udaletxeko arkupeetan, 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzat. Ume mordoxka bat gerturatu zen arratsalde pasa eder bat egiteko asmoz, eta primeran pasa zuten margotzen, eta eskulanak egiten: Gabonetako zuhaitz ederrak eta *tres en raya* jokuak egin zituzten. ||



❖ BIKAIN OKINDEGIA Adrian Polok irabazi du Gabonetako saskia

Santo Tomas egunean zozketatu zuten Gabonetako saskia, Elkano kaleko Bikain okindegian. Adrian Polo izan da irabazlea, eta pozik jaso zuen saria: pastak, bonboiak, txanpaina... Gabonetarako behar diren jaki guztiak! ||

◆ KIDE KAFETEGIA - KIROL TALDEA

Larunbateko orientazio proban parte hartzeko ikastaroa, gaur

Bihar, 10:00etatik 12:30etara bitartean orientazio proba egingo da Aiako Harrietan, Elurretetik abiatuta. Kide kafetegian mendiko orientazio proba horretan parte hartzeko argibideak emango dira gaur, 18:00etatik 20:00etara. Larunbateko proba bakarka edo gidatuta egiteko aukera emango da. Parte hartzeko 3 euro ordaindu behar dira. ||

❖ TXOTX IREKIERA

2013ko txotx denboraldiaren irekieran ez da festarik antolatutako, krisia dela eta

Udalak Kronikari adierazi dionaren arabera, 2013ko txotx irekieran festarik ez da izango. Krisia dela eta, hartu du erabakia Udalak. Ondorioz, ez da ekitaldi berezirik egingo, orain arte bezala, eta ez dute gonbidatu berezirik ekarriko. ||

❖ URTE ZAHARREKO ERRONDA

Astelehenean egingo da urteroko erronda

Hernaniko Ohitura Zaharrak abesbatzak Urte Zahar eguneko erronda egingo du astelehenean, 17:30etan abiatuta. Elkartzeko ordua 17:15etan jarri dute, udaletxeko arkupeetan. ||

◆ ATLETISMOA

Eskerrak laguntzaileei

C.D.Hernani atletismo taldeak eskerrak eman nahi dizkie Gabonetako loteria saltzen lagundu dutenei, eta urte berri ona opa nahi die atletismo taldeko kideei. ||

❖ SAHARA

Saharara bidaltzeko janari bilketa

Urtarrilaren 18ra arte, Saharara bidaltzeko premiazko artikuluak jasoko dira Biteri kultur etxean. Besteak beste, honakoak eraman daitezke: kontserba latak, arroza, pasta, irina, azukrea, lentejak, betaurrekoak, eskolako materiala, zapatak, kremak... Bestalde, diruz lagundu nahi duenak badu aukera, Euskadiko Kutxako (Caja Laboral) zenbaki honetan: 3035 0080 94 0800054177. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Luntxa eta sari banaketa gaur, 12garren urteurrena ospatzeko

Karobi elkarteak 12 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, bazkideekin luntxa antolatu dute gaur. Luntxa 20:00etan hasiko da, eta ondoren, mus txapelketako garaikurrak banatuko dira ||

❖ ASTIGARRAGA

Haurrentzako joko aretoa irekita dago

Astigarragako kultur etxeko areto nagusia haurrentzako joko areto bihurtu da Gabonetan. Irekita dago, 9-11 urte bitarteko umeentzat, gaur eta urtarrilaren 2, 3 eta 4ean, goizez, 11:00etatik 13:00era eta arratsalde, 16:30etatik 18:30etara. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
 ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
 Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)